

# EGAPE IKASTOLA

## KONTINGENTZI PLANA

### 2020-2021 ikasturtean jarduteko protokoloa (Covid-19)

(DOKUMENTU HAU IREKIA DA ETA BEHARRAREN ARABERA MOLDATUKO DA)

## LEHENENGO AGERTOKIA

### HIGIENE NEURRIAK

- Gela guztietako ateetan higie arauak hormairudietan jarri.
- Edateko ura: bakoitzak bere botila ekarri behar du izena jarrita.
- Eskulekuak plastiko zuri-gorriarekin estali ezin direla ukitu gogorarazteko (Ikasleak ohitu arte).
- Geletako ateak irekita edukiko dira eta jolasorduetan leihoak irekiko dira gela aireztatzeko.
- Hidrogelak:
  - Gela guztietan eta eraikinen sarreretan egongo dira.
  - Geletako hidrogelarekin egunean zehar hainbat ordutan eskuak garbituko dituzte: sarreran, komunera joan ondoren, jolasordutik igotzean, eguerdian eta arratsaldeko sarreran. HHko ikasleek, hainbatetan, ura eta xaboiez.
- Musukoa:
  - Bakoitzak bere musukoa ekarri behar du izena edota ikur bat jarrita (LH1etik aurrera).
  - Maila bakoitzeko musuko kaxa bat egongo da.
  - Osasun arazoengatik musukoa erbili ezin dutenek sendagilearen agiria aurkeztu beharko dute.
  - Egun osoa musukoa erabili behar dute ikasleek. Salbuespena talde egonkor guztiek (HH eta LH) aire zabalean egiten dituzten jardueretan betiere kontaktu fisikorik ez badago (irailaren 8an Hezkuntzak bidalitako jarraibideetan adierazita dagoen bezala).
- Materiala:
  - LH: Bakoitzak bere materiala ekarriko du.
  - Geletan dugun material manipulatioa erabili ondoren zenbat egunetan baztertuko da berriro erabili aurretik. Bestela, erabilitakoa garbituko da erabili ondoren.
  - Teklatuak: LH3tik aurrera bakoitzak bere ordenagailua erabiliko du.
  - Informatika gela: Irakasleek eta Lehenengo zikloak bakarrik erabiliko dute, LH3tik aurrera ikasle bakoitzak bere ordenagailua izango baitu. Saioa bukatzean ikasle/irakasle bakoitzak erabili duen teklatura garbituko du.
- Gaixotasunak:
  - Sintomaren bat edo sukarra duena (>37) etxera joango da. Familiari haurra jasotzea eskatuko zaio. Bitartean ikaslea gelatik atera eta irakasle batekin beste gela batean

egongo da (COVID GELA: HHn dagoen Atsedean gela). Gurasoen telefonoez gain, gurasoen lantoki edota aiton-amonena edukitzea komeni da. Sintomak: 37 gradutik gorako sukarra, ezdul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasunak, usain edo dastamenik ez izatea.

[https://drive.google.com/file/d/1eCXwuXg8wMuqyaaTuiDkKJp83-rRkN\\_G/view](https://drive.google.com/file/d/1eCXwuXg8wMuqyaaTuiDkKJp83-rRkN_G/view)

\*Covid gela erabili ezean ondoezik dagoen ikaslea idazkaritzan egongo da familia etorri arte.

- Aireztatzea: geletako leihoak zabalik uztea ikasleak sartu aurretik, hutsik geratzen den bakoitzean eta egunaren bukaeran.
- Aurten ez ditugu alfonbrak erabiliko. HHn garbigarriak diren esterillak izango dituzte.
- Geletako atak ZABALIK egongo dira uneoro eta gelak ahalik eta aireztatu mantenduko dira. Ateak itxita daudenean, leihoak zabalduko dira.
- Ikasleak komunera bakarka joango dira. Komuna okupatuta badago kanpoan itxoingo dute libratu arte.
- Higiene neurriak egunero landuko dira sartu bezain pronto.

# IKASGELEN ANTOLAKETA

## JOAN ETORRIAK:

- Haurrak espezialisten geletara joan ordez, espezialistak geletan sartuko dira.

## TALDEKATZEAK:

-HHn musukoa ez da derrigorrezkoa.

-Lehen Hezkuntza: musukoa erabiliko da uneoro. Salbuespena: Hezkuntzak ezarritako Protokoloak dion bezala, LHko ikastalde guztiak egonkorrak izango dira. LHn, ikastalde guztiak egonkorrak direnez, musukoa ez da derrigorrezkoa izango aire zabalean eta kontaktu fisikorik gabe egiten diren jardueretan.

\*Espazio gehiago behar izanez gero ikastolan sortutako “Espazioen antolaketa 2020-2021” dokumentua begiratu: **N/2020-21 ikasturtea/Espazioen antolaketa 2020-2021.**

## GELAKO ALTZARIAK:

- Ikasleek bere material propioa izango dute: mahaia eta aulkia, etxetik ekarritako estutxea, bere apala izenarekin.

# SARRERAK / IRTEERAK

## HH

Sarrera		Ikastolara sarrera / irteera	Gelara sarrera / irteera		Irteera mailakatua
<b>9:05</b>	3uA/3uB	Plazatik	Goiko aterpetik	Aterpean lerrotan kokatu (txartelak) ordenean gelaka 3uA/3uB Ikasleak sarreran jaso.	<b>12:25</b> <b>16:25</b>
<b>9:05</b>	4uA/4uB	Lizardi kaletik	Beheko aterpetik	Beheko aterpean lerrotan kokatu (lurrean txartelak) ordenean gelaka 4uA/4uB/5uA/5uB Ikasleak sarreran jaso.	<b>4 urte:12:30</b> <b>16:30</b>
<b>9:00</b>	5uA/5uB	Sarrera nagusitik	Beheko aterpetik		<b>5 urte: 12:30</b> <b>16:20</b>

### OHARRAK:

**LEHENENGO ASTEAN:** Tutore guztiak aterako dira ikasleen bila eta sarreran egongo den beste irakasle batek ilaran sartzean tenperatura hartuko die.

- **2 urtekoek** sarrera malgua mantenduko dute ikasturte osoan eta familiek gelara sartzeko musukoa erabili beharko dute. Gelara heldu batekin (familia, zaintzailea...) sartuko dira eta tenperatura ez zaie hartuko hasieran ikasleak ez izutzeko.. Heldua musukoarekin sartuko da. Etxean tenperatura hartuko zaie.

-**3 urteko** egokitzapena irauten duen bitartean sarrera malgua izango da 09:15etatik 09:45ak arte. Gelara heldu batekin (familia, zaintzailea...) sartuko dira eta tenperatura ez zaie hartuko hasieran haurrak ez izutzeko. Heldua musukoarekin sartuko da. Egokitzapena amaitzean haurrak aterpe txikian jasoko ditu tutoreak 09:15ean. Sartu aurretik tenperatura hartuko zaie.

Egokitzapenak irauten duen bitartean etxean tenperatura hartuko zaie.

-**4 eta 5 urte:** Ikastolako eraikuntzara sartu aurretik tenperatura hartuko zaie. Familiek ikastolako eremura sartzeko musukoa erabiliko dute. Lehenengo egunetan gurasoek geletara haurrarekin batera igotzeko aukera izango dute (gelak ezagutu, haurrak egokitu...). Tenperatura lehenengo egunetik hartuko zaie.

Lehenengo egunean ikasle bakoitzarekin heldu bat sartu daiteke gelaraino.

Bigarren egunetik aurrera beharra daukatenak.

Hau guztia modu egokian bermatu ahal izateko lehenengo bi egunetako sarrera ordutegia berezia izango da:

- 4 urte A: 09:15ean

- 4 urte B: 09:30ean
- 5 urte A: 09:00ean
- 5 urte B: 08:45ean

HHko goizeko zaintzan dauden haurrak irakasleak 09:00etan jasoko ditu.

4 eta 5 urtekoen irteera: beheko aterpetik egingo da. 4 urtekoak HHko atetik aterako dira eta 5 urtekoak aterpeko eskubiko atetik.

-Arratsaldeko sarrera: etxetik datozenak ohiko moduan sartuko dira,hau da, goizeko sarrerako toki berean jasoko ditu irakasleak. Mailako bat jaitsiko da etxetik datozenak jasotzera eta bestea gelan geratuko da bi gelak kontrolatzen.

## LH

Sarrera		Ikastolara sarrera / irteera	Gelara sarrera / irteera		Irteera
<b>9:00</b>	1.A/1.B	Plazatik	Frontoi txikitik	Frontoi txikian lerrotan kokatu (zutabeetan txartelak) ordenean mailaka 1.A/1.B	<b>16:30</b>
<b>9:10</b>	2.A/2.B/ 2.C 3.A/3.B	Futbol zelaitik Futbol zelaitik	Frontoi handitik Frontoi handitik	Frontoi handian lerrotan kokatu (zutabeetan txartelak) ordenean mailaka 2.A/2.B/2.C 3.A/3.B	
<b>9:00</b>	4.A/4.B	Futbol zelaitik	Frontoi handitik	Frontoi handian lerrotan kokatu (zutabeetan txartelak) ordenean mailaka 4.A/4.B	<b>16:20</b>
<b>9:00</b>	5.A/5.B 6.A/6.B	Mahai teniseko atetik	Frontoi handitik	Frontoi handian lerrotan kokatu (zutabeetan txartelak) ordenean mailaka 5.A/5.B/6.A/6.B	<b>16:25</b>

### OHARRAK:

- Goizeko zaintzan dauden ikasleei, begiraleak dagokien ilarara lagunduko die.
- Ikastolako eraikinera sartu aurretik tenperatura hartuko zaie goizean ilaran daudenean.
- Ikasle guztiak musukoarekin egongo dira ilaratan.
- Gurasoak eskolako eremura sartzea sahiestu behar da LH 3.mailatikan aurrera. Eta sartzea beharrezkoa den kasuetan musukoa jarrita eraman beharko dute.
- 1. mailan, lehenengo egunean ikasle bakoitzarekin heldu bat sartu daiteke gelaraino. Bigarren egunetik aurrera beharra daukatenak.

- Sarrera/irteerak bai goizean bai arratsaldean mailakatuak izango dira hurrenez hurren:

4. pisua: 4.A/4.B

3. pisua: 5.A/5.B/6.A/6.B

2.pisua: 2.A/2.B/3.A/3.B

-Arratsaldeko sarreran, ikasle guztiak dagokien zutabeen jarriko dira, baita etxean bazkaltzen dutenak ere. Ilararen hasieran jangelakoak jarriko dira.

-Tenperatura hartzea: zerrenda bat egingo da (Txalapartakoa) eta txanda bakoitzeko 4 pertsona (ez tutoreak) izendatuko dira: LHko eraikinean 2 irakasle, HHko goiko sarreran irakasle 1 eta beste bat beheko sarreran.

\*URTARRILETIK AURRERA: Sarrera azkarragoak egin ahal izateko ikasleei tenperatura hartuko zaie etxean etorri aurretik.

## **IKASTURTE HASIERAKO FAMILIEKIN BILERAK**

- Irailean egingo dira bilera guztiak frontoian eta 2 urtekoek Etxeberriko parkean.
- Kontingentzi plana azalduko zaie familiei (maila bakoitzak berari dagokiona). Beste ikasturtetan azaltzen diren gaiak laburtuko dira ahalik eta gehien.
- Bilerak ez dira luzeak izango (asko, asko jota ordubetekoak).
- Bileretara ikasle bakoitzeko guraso bakarra etorriko da musukoa jarrita.
- Ezin baditugu argitu familien kezkak informazioa jaso bezain pronto helaraziko diegula erantzungo diegu.
- Kontingentzi plana oso malgua dela adierazi behar diegu, egoeraren arabera aldatuko da eta aldaketen berri emango zaie.
- Bilera ondoren irakasleek erabilitako aulkiak garbituko dituzte.

# **KOMUNIKAZIO TALDEA**

## **COVID-19 IDATZIA**

COVID-19ko pandemiak sortutako egoerak, ziurgabetasunez betetako esperientzia berriak bizitzera eramán gaitu.

Egoera honi aurre egiteko eta identifikatuak ditugun beharrak egoki asetzeko, oso garrantzitsua iruditzen zaigu dokumentu hau eskola-komunitate osoari helaraztea (familiak, irakasleak, Udala, Hezkuntza, Berritzegunea...).

2020-21 ikasturtea segurtasun eta osasun baldintza egokian burutzeko eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko, zenbait giza baliabide eta baliabide materialak beharrezkotzat jotzen ditugu.

- Higiene eta segurtasun neurriak:
  - Eraikinetako garbiketa areagotzea: komunak egunean hirutan garbitzea, heldulekuak, argi- etenkariak, maratilak...egunero desinfektatzea, gainazalak sakontasunez garbitzea.
  - Hezkuntzak modu egokian ikastola hornitzea: gela bakoitzeko termometro bat (21 termometro), hidrogelak ( espazio komunak, ikasgelak, sarrerak eta jangela: astean 30 pote), maskarak (langile guztientzat 50 aleko kaxa bat bi hilabetero)
  
- Prebentzio- neurri orokorrak:
  - Lurraren markajea
  - Sarrera-irteerak
  - Jolasgaraiak
  
- Ikaslegoari errefortzuak:

“Ikasturtearen hasieratik arreta berezia eskaini behar zaie Curriculumaren, harremanen, ekonomiaren, emozioen... esparruan eragin negatiboa jasan duten ikasleei eta familiei”(20-21 ikasturtearen ebazpena). Hori dela eta, ez dugu ulertzen eta onartzen izan dugun PT irakaslearen murrizketa.

  - Baliabideak
  - Formakuntza
  - Nork zaintzen gaitu?
  - Inbertsioak ez gastuak
  - Administrazioaren beharra:eskola komunitatea bakarrik ez



## JOLASORDUA HH (patioan mailaka elkartuko gara)

### GOIZEZ

	Ordua	Eguraldi ona	Eguraldi txarra
3urte/4urte/5urte	HH3: 11:05-11:50 HH4:11:10-11:55 HH5:11:15-12:00	(Txandaturuz egunero) Parkea Frontoi txikia Aterpea goikoa eta behekoa	(Txandaturuz egunero) Parkea Frontoi txikia Aterpea goikoa eta behekoa

### ARRATSALDEZ

	Ordua	Eguraldi ona	Eguraldi txarra
3 urte/4 urte/5 urte	HH3: 15:40-16:05 HH4:15:45-16:10 HH5:15:50-16:15	(Txandaturuz egunero) Parkea Frontoi txikia Aterpea goikoa eta behekoa	(Txandaturuz egunero) Parkea Frontoi txikia Aterpea goikoa eta behekoa

## JOLASORDUA LH IRAILA

Jolastokira mailaka/gelaka aterako dira haurrak baina musukoa jarri beharko dute.

### OHARRA:

-Irailean 3 urtekoak 10:30-11:00etara aterako dira jolastera (parkea libre utzi behar da beraientzat)-

### 1. ASTEA

	Ordua	Eguraldi ona	Eguraldi txarra
1./2./3./ maila	LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55	1.maila: frontoi erdia 2.maila: frontoi erdia 3.maila: esku/saski zelaiak	1.maila: frontoi erdia 2.maila: frontoi erdia 3.maila: esku zelaia

<b>4.5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: futbol zelaia 5.maila: futbol zelaia 6.maila: goiko zelaiak</b>	<b>4.maila: saski zelaia+egurrezko harmailak 5.maila: frontoi handia 6.maila: esku/saski zelaiak</b>
----------------------	---	---	--

## 2. ASTEA

	<b>Ordua</b>	<b>Eguraldi ona</b>	<b>Eguraldi txarra</b>
<b>1./2./3./maila</b>	<b>LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55</b>	<b>1.maila: frontoi erdia 2.maila: futbol zelaia 3.maila: frontoi erdia</b>	<b>1.maila: frontoi erdia 2.maila: saski zelaia+ egurrezko harmailak 3.maila: frontoi erdia</b>
<b>4. 5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: esku/saski zelaiak 5.maila: goiko zelaiak 6.maila: futbol zelaia</b>	<b>4.maila: esku zelaia 5.maila: esku/saski zelaiak 6.maila: frontoi handia</b>

## 3. ASTEA

	<b>Ordua</b>	<b>Eguraldi ona</b>	<b>Eguraldi txarra</b>
<b>1./2./3./maila</b>	<b>LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55</b>	<b>1.maila: frontoi erdia 2.maila: esku/saski zelaiak 3.maila: futbol zelaia</b>	<b>1.maila: frontoi erdia 2.maila: esku zelaia 3.maila: saski zelaia+ egurrezko harmailak</b>

<b>4.5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: frontoi erdia 5.maila: futbol zelaiak 6.maila: goiko zelaia</b>	<b>4.maila: frontoi erdia 5.maila: frontoi handia 6.maila: esku/saski zelaiak</b>
----------------------	---	---	---

## **JOLASORDUA LH URRITIK AURRERA**

### **1.ASTEA**

	<b>Ordua</b>	<b>Eguraldi ona</b>	<b>Eguraldi txarra</b>
<b>1./2./3./ maila</b>	<b>LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55</b>	<b>1.maila: frontoi txikia eta parkea 2.maila: frontoi osoa 3.maila: esku/saski zelaiak</b>	<b>1.maila: frontoi txikia 2.maila: frontoi osoa 3.maila: esku zelaia</b>
<b>4.5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: futbol zelaia 5.maila: futbol zelaia 6.maila: goiko zelaiak</b>	<b>4.maila: saski zelaia+ egurrezko harmailak 5.maila: frontoi handia 6.maila: esku/saski zelaiak</b>

### **2.ASTEA**

	<b>Ordua</b>	<b>Eguraldi ona</b>	<b>Eguraldi txarra</b>
<b>1./2./3./ maila</b>	<b>LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55</b>	<b>1.maila: frontoi txikia eta parkea 2.maila: futbol zelaia 3.maila: frontoi osoa</b>	<b>1.maila: frontoi txikia 2.maila: saski zelaia+egurrezko harmailak 3.maila: frontoi osoa</b>
<b>4./5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: esku/saski zelaiak 5.maila: goiko zelaiak 6.maila: futbol zelaia</b>	<b>4.maila: esku zelaia 5.maila: esku/saski zelaiak 6.maila: frontoi handia</b>

### 3.ASTEA

	<b>Ordua</b>	<b>Eguraldi ona</b>	<b>Eguraldi txarra</b>
<b>1./2./3./. maila</b>	<b>LH 1: 10:25/10:55 LH 2: 10:20/10:50 LH 3: 10:25/10:55</b>	<b>1.maila: frontoi txikia eta parkea 2.maila: esku/saski zelaia 3.maila: futbol zelaia</b>	<b>1.maila: frontoi txikia 2.maila: esku zelaia 3.maila: saski zelaia+egurrezko harmailak</b>
<b>4./5./6. maila</b>	<b>11:05/11:35 ( irakasleak kontrolatu irteera mailakatua izan dadin)</b>	<b>4.maila: frontoi osoa 5.maila: futbol zelaia 6.maila: goiko zelaia</b>	<b>4.maila: frontoi osoa 5.maila: frontoi handia 6.maila: esku/saski zelaia</b>

#### **OHARRAK:**

-Jolasgaraietan zaintzak handituko dira.. Gutxienez gelako irakasle bat.

-Jolas eremua ezin da maila bereko beste gelarekin partekatu une berean. Beharrezkoa izanez gero ordu desberdinetan aterako dira maila bereko bi (hiru) gelak. Jolasorduen ordutegia malgua izango da eta mailakideen artean antolatuko da.

-Jolas garaia bukatu eta gero geletan sartzeko ilarak osatuko dituzte gelaka.

-Gelan sartzen direnean gel hidroalkoholikoa erabiliko dute eskuak garbitzeko.

\*Bigarren hiruhilekotik aurrera hainbat zikloetako jolasgaraietako zaintzak gutxituko dira, ez baita beharrezkoa ikusten gela bakoitzeko irakasle bat.

\*Aurtengo egoera dela eta, 4.mailakoak 10:30etan jolasgaraira irten beharrean, ikasle kopurua oso altua baitzen, erabaki zen 3. zikloekin batera jeistea, horrela jolastokian ikasle gutxiago biltzen zirelako.

#### **GELA BAKOITZEAN:**

-Txartelak jarriko dira: “Garbitasun arauak”.

-Gel hidroalkoholikoa eskuak garbitzeko.

-Egunero, sarreran, higiene ohiturak landuko dira: musukoa, eskuen garbiketa, distantzia.

-Sartu bezain pronto hidrogela emango zaie eskuak garbitzeko. Gauza bera egingo da jolasordutik ateratzean eta etxera joan aurretik. Urritik aurrera garbituko dituzte eskuak gelara sartu eta atera aurretik. (HHn, hainbatetan ur eta xaboiez).

-Komunera banaka joango dira. Komun barruan norbait badago, kanpoan itxoin behar dute komuna libratu arte. Ondoren eskuak garbitu behar dituzte.

-Pasabideetan ekidin behar ditugu gelak gurutzatzea.

# JANGELA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN

Covid19ak aurten sortutako egoerak behartu gaitu ikastolan hainbat aldaketa aurrera eramatea, beste ikastetxe guztietan gertatu den bezala.

Bazkaltzeko garaian 3 txanda antolatu dira ziurtatzeko ikasleen artean distantzia errespetatzen dela eta txanden artean jangelako garbiketa burutzen da.

Lehenengo txanda: Haur Hezkuntzako bazkaltziarrak 12:00ean joaten dira jangelara etxeoak tutorearekin geratzen diren bitartean 12:30ak arte.

Ordutegia: 12:00-12:45.

Bigarren txanda: Lehen Hezkuntza 1, 2 eta 3.

Ordutegia: 13:00-13:45.

Hirugarren txanda: Lehen Hezkuntza 4, 5 eta 6.

Ordutegia: 13:55-14:30.

Bazkalondoren ikasleak mailaka biltzen dira talde bakoitzak bere jolas eremua duelarik eta maila bakoitzaren arduraduna begirale bat da.

Haur Hezkuntzakoak izan ezik Lehen Hezkuntzako ikasleek musukoa erabili behar dute denbora tarte honetan Hezkuntzak igorritako jarraibideak eskatzen duen bezala.

Etxeberrin txanda bakarra izan arren bi toki desberdinetan bazkalduko dute hurrek euren arteko distantzia bermatu ahal izateko.

Guztira 11 begirale ditugu Lizardin eta 3 Etxeberrin.

Bazkaltziar kopurua:

-Lehenengo txandan 66 bazkaltziar.

-Bigarren txandan 81 bazkaltziar.

Hirugarren txandan: 69 bazkaltziar.

\*Bigarren hiruhilekotik aurrera ikastolako jolas materialak (baloiak, sokak) utziko zaizkie ikasleei. Astean behin material hauek plater-garbigailuan garbituko dira.

Jangelako arduraduna, aurreko ikasturtean bezala, Lutxi Guiral irakaslea da.

Berarekin harremanetan jartzeko helbidea: [lucia.lutxi@egape.eus](mailto:lucia.lutxi@egape.eus).

## 2020-2021 ikasturtean jarduteko protokoloa:

### BIGARREN AGERTOKIA

EGOERA MISTOA EMATEN BADA:

\*Gela gehiago behar izanez gero DBHko eraikineko gelak erabiliko genituzke hango ikasle zaharrenek telelana egingo dutelako.

\*Kasu honetan espezialistek bere arloa ezingo dute eman eta sortuko diren talde berrien ardura hartuko dute.

\*Momentuan aztertuko da:

-Ingelesa bai baina saio gutxiago gela gehiagotan sartu behar dutelako irakasleek.

-Ingelesa bai baina hainbat zikloetan bakarrik.

-Beste espezialidadeak hainbat zikloetan bakarrik.

### HIRUGARREN AGERTOKIA

#### Itxialdia:

ETAPA	ZER ERABILI	NOLA ANTOLATU
HH	Gurasoen korreoa  Bideo deiak  Lan proposamena (ez da derrigorrezkoa)  Gurasoekin harremanak	-Astean bitan harremanetan jarriko gara gurasoekin: astelehen eta ostegunetan. -Astean behin familiei proposamenak bidaltzeko erabiliko da (hitzaldiak...), eta bestea, ikasleentzako bideo grabaketak, jolasak... bidaltzeko erabiliko da. Bideo hauek ere aprobetxatuko dira ikasleei zuzentzeko.  -2-3 urtekoak: bakarkako saioak eskainiko dira bi astetik behin.  -4-5 urtekoak: astean bi saio eskainiko dira, bat goizez eta bestea arratsaldean. Nahi duena sartzen da.  -5 urtekoei proposamen zehatzagoak eskaintzea pentsatzen da (matematika, aurreidazketa...)  Astean bitan bidaltzen zaien korreoa aprobetxatuko da beraien seme-alaben hezkuntzarekiko dituzten zalantzak argitzeko eta edozein aldaketen berri emateko.
LH 1	Gurasoen korreoa	-Astean hirutan harremanetan jarriko gara gurasoekin: astelehen, asteazken eta ostirala. Korreo hauek ere aprobetxatzen dira ikasleei zuzentzeko.

	<p>Lanak nola egin + Bideo deiak</p> <p>Lanen jasoketa</p> <p>Ebaluazioa</p> <p>Gurasoekin harremanak</p>	<p>-Plangintza orokorra bidali astelehenetan; ondorengo egunetan, asteazkenetan eta ostiraletan, zuzenketarako edo oharretarako.</p> <p>-1. mailan astero bi egunez bideodeia (horietako bat, arratsaldean), edukiak azaldu eta zalantzak argitzeko;</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bat, zalantzak argitu eta plangintza aurkezteko</li> <li>- Bestea aspektu ludikoa emanez: hizkuntza, joku matematikoak, ... (ahozkoa landu).</li> </ul> <p>2. mailan astero hiru egunez bideodeia (horietako bat, arratsaldean), edukiak azaldu eta zalantzak argitzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bat, zalantzak argitu eta plangintza aurkezteko</li> <li>- Bestea aspektu ludikoa emanez: hizkuntza, joku matematikoak, ... (ahozkoa landu). Saio hau partekatu daiteke, hamabostero ingeleseko irakaslearekin.</li> <li>- Hirugarrena, tutoretza edota zalantzak</li> </ul> <p>Bideodeiaz irakurketa landu daiteke</p> <p>Derrigorrezkoak diren lanak jasoko dira astero (hauek ebaluatuko baitira); hautazkoak, berriz, gurasoen esku geratzen dira bidalketak, eta jasotzen direnak, baloratuko dira. Zer formatotan jasoko dira? Argazkiak?</p> <p>Lanak bidaltzeko garaian, derrigorrezkoak, eta hautazkoak direnak ongi zehaztuko dira. Denak baloratuko diren arren ez dira denak ebaluatuko. Ebaluatuko direnak tutoreak jasoko ditu; hautazkoei zuzenketak bidaliko zaizkie, autozuzenketa egin dezaten.</p> <p>-Astean hirutan bidaltzen zaien korreoa aprobetxatuko da beraien seme-alaben hezkuntzarekiko dituzten zalantzak argitzeko eta edozein aldaketen berri emateko.</p> <p>-Bakarkako korreok: Beharrezkoa den kasuetan, ikasle baten jarraipen zehatzen berri emateko. Gurasoei korreo bat bidali eta aste beteko epea emango diegu erantzuteko. Ez badute erantzuten aste beteko epe horretan, deitu egingo diegu. Deia ez badigute hartzen, zuzendaritzarekin harremanetan jarriko gara.</p>
LH 2	Drive	<p>-Astero WORD bat bidaliko zaie plangintza azalduz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskara, Gaztelania eta Ingurunea.</li> <li>-Matematika.</li> <li>-Ingelesa.</li> <li>-Musikan eta Gorputz Hezkuntza.</li> <li>-Plastika.</li> </ul>



	<p>Lanak non egin</p> <p>Ebaluazioa</p> <p>Bideo deiak</p> <p>Gurasoekin harremanak</p>	<p>-Driven egingo dira gehienak.</p> <p>-Kuadernoan egiten direnak, argazkia eskatuko zaie.</p> <p>-Irakasgaien liburu guztiak etxera eramango dituzte.</p> <p>-Lan guztiak baloratuko dira, kuantitatibo eta kualitatiboki. -</p> <p>Astero egingo dira zuzenketak.</p> <p>-Astearen bukaeran, ikasleen jarraipena egingo da.</p> <p>-Hasieran egunero goizero eta beharraren arabera, egokitzen joango da. Goizean eguneko plangintza azalduko da eta bezperako zalantzak/edukiak bideo deiez azaldu eta argituko dira. Egunean zehar, korreoz zalantzak argitzen joango gara.</p> <p>-Astean behin tutoretza egiteko.</p> <p>-Ingelesekoak, bideo deia astean behin egitea plan berean.</p> <p>-PT-ak astean behin bideo deiak egitea, HIBP duten ikasleen jarraipena egiteko.</p> <p>-Astean behin korreoa bidaliko zaie, beraien seme-alaben hezkuntzarekiko dituzten zalantzak argitzeko eta edozein aldaketen berri emateko.</p> <p>-Bakarkako korreok: Beharrezkoa den kasuetan, ikasle baten jarraipen zehatzen berri emateko. Gurasoei korreo bat bidali eta aste beteko epea emango diegu erantzuteko. Ez badute erantzuten aste beteko epe horretan, deitu egingo diegu. Deia ez badigute hartzen, zuzendaritzarekin harremanetan jarriko gara.</p>
LH 3	<p>Classroom</p> <p>Lanak non egin</p> <p>Ebaluazioa</p> <p>Bideo deiak</p>	<p>-Euskara, Gaztelania eta Ingurunean, asteroko lanak bidali.</p> <p>-Matematikan, astean bitan.</p> <p>-Musikan, Gorputz Hezkuntzan eta ingelesean, astean behin.</p> <p>-Tailerrak, bi/hiru astez behin.</p> <p>-Classroomen egingo dira gehienak.</p> <p>-Kuadernoan egiten direnak, tarteka argazkia eskatuko zaie.</p> <p>-Irakasgaien liburuak etxera eramango dituzte.</p> <p>-Lan guztiak baloratuko dira.</p> <p>-Astero egingo dira zuzenketak.</p> <p>-Astearen bukaeran, ikasleen jarraipena egingo da.</p> <p>-Egunero goizean eta arratsaldean. Goizean eguneko plangintza azalduko da, eta arratsaldean, eguneko plangintza itxi eta</p>

	Gurasoekin harremanak	<p>zalantzak eta edukiak landuko dira beharrezkoak direnean. Egunean zehar, korreoz zalantzak argitzen joango gara.</p> <p>-Astean behin literatur tertulia egiteko.</p> <p>-Astean behin tutoretza egiteko.</p> <p>-Ingelesekoak, bideo deia astean behin egitea plan berean.</p> <p>-PT-ak astean behin bideo deiak egitea, HIBP duten ikasleen jarraipena egiteko.</p> <p>-Astean behin korreoa bidaliko zaie, beraien seme-alaben hezkuntzarekiko dituzten zalantzak argitzeko eta edozein aldaketen berri emateko.</p> <p>-Bakarkako korreok: Beharrezkoa den kasuetan, ikasle baten jarraipen zehatzen berri emateko.</p> <p>-Gurasoei korreo bat bidali eta aste beteko epea emango diegu erantzuteko. Ez badute erantzuten aste beteko epe horretan, deitu egingo diegu. Deia ez badigute hartzen, zuzendaritzarekin harremanetan jarriko gara.</p>
<b>EZINBEST EKO BALIABID EAK</b>	<b>BIDEODEIAK MEET ERABILIZ EGINGO DIRA.</b> <b>WIFI KALITATEZKOA.</b> <b>IRAKASLEEI ORDENAGAILUA KAMARADUNA BERMATU.</b> <b>IRAKASLEEK TELEFONO FAKTURAREN ORDAINKETARI PIZGARRIA EDO LAGUNTZA.</b> <b>IKASLE ZAURGARRIENEI ORDENAGAILUA ESKEINIKO ZAIE.</b> <b>IKASLEE ZAURGARRIENEI WIFI KONEXIOA BERMATUKO ZAIE.</b>	

#### **ARRISKU BERRIAK:**

- ZIBERBULLYING-a SAIHESTEKO NEURRIAK HARTU BEHAR DIRA.

#### **IRADOKIZUNAK:**

- GURE PROPOSAMENA: TUTOREAK ETA IRAKASLEAK EGUNERO (MAILAREN ARABERA MAIZTASUNA ZEHAZTU) ORDUBETE ESKAINI ZALANTZAK ARGITZEKO.
- EGUNERO IKASLEEKIN EGUNA HASI ETA BUKATUKO DA BIDEODEI MOTZ BATEZ.

# **ITXIALDIA HAUR HEZKUNTZA**

## **1.- KONFINAMENU EGOERA ERABATEKOA (DENOK ETXEAN)**

2-3 urtekoak banakako bideo-deiak egingo dituzte 3 astero behin. Horrez gain, sarean dauden proposamen desberdinak (ipuinak, abestiak, jolasak...) bidaliko dizkiete ikasleei astero eta familiei ere korreo bat astero (zer moduz dauden, zerbaiten beharra somatzen duten...).

4-5 urtekoak taldeko bideo-deiak egingo dituzte astean bitan (bat goizean bestea arratsaldean). Bideo-dei horietan proposamen desberdinak egingo dituzte (ipuinak kontatu, hizkuntza jolasak...). Horrez gain, astero familiei korreo bat bidaliko zaie (zer moduz dauden, zerbaiten beharra duten...).

## **2.- GELA KONFINATUTA BAINA IRAKASLEA EZ.**

HHko ikasleekin taldeko bideo-deiak egingo dira bitan konfinamenduak irauten duten bitartean (bat goizean bestea arratsaldean). Bideo-dei horietan proposamen desberdinak egingo dituzte (ipuinak kontatu, hizkuntza jolasak...). Horrez gain, konfinamendu hasieran familiei korreo bat bidaliko zaie (zer moduz dauden, zerbaiten beharra duten, bideo-deien proposamena...).

## **3.- GELA ETA IRAKASLEA KONFINATUTA ETA IRAKASLEA BAJAREKIN.**

Ez da bideo-deirik egingo konfinamenduak irauten duten bitartean. Ordezkoa ikastetxearen beharretara egongo da. Familiei ohar bat bidaliko zaie egoera zein den azalduz.

## **4.- IKASLE BAT KONFINATUTA, GAINERAKOAK GELAN**

Telefono-deia edo bideo-deia egiteko aukera eskainiko zaie.

# **ITXIALDIA LH 1. ZIKLOA**

<b>ETAPA</b>	<b>ZER ERABILI</b>	<b>NOLA ANTOLATU</b>
--------------	------------------------	----------------------

<p>LH 1. ZIKLOA</p>	<p>Gurasoen korreoa</p> <p>Lanak nola egin + Bideo deiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Konfinatutako lehenengo egunean aste osorako plangintza emailez bidaliko da (zer egin, bideo-deiak noiz diren zehaztu...).</li>   <li>- Bideo-deien zehaztapena: <ul style="list-style-type: none"> <li>Ø Asteko 3 bideo-dei guztira.</li> <li>Ø 5 ikasleko 4 taldeetan antolatuta.</li>   <li>Ø 2 bideo-dei tutoreek erabiliko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideo-dei bat ahozketasuna, irakurketa eta idazketa lantzeko erabiliko da (era ludiko batean).</li> <li>• Beste bideo-dei bat matematikak lantzeko erabiliko da.</li> </ul> </li>   <li>Ø Bideo-dei 1 espezialistek erabiliko dute txandaka (aste batean <i>english</i> eta bestean <i>musika</i>).</li> </ul> </li> </ul> <p>Eskolara bueltan jasoko dira txostenak.</p>
---------------------	--	--

**Lanen  
jasoketa**

**Txostenaren zuzenketa eta bideo-deietan  
izandako konekzio maila.**

**Ebaluazioa**

**Korreoen bitartezko harremana mantenduko  
da.**

**Gurasoekin  
harremanak**

**Korreoz, telefonoz, meet-ez.**

**EZINBESTEKO**

**BIDEODEIAK *MEET* ERABILIZ EGINGO DIRA.**

**WIFI KALITATEZKOA.**

**BALIABIDEAK**

**IRAKASLEEI ORDENAGAILUA KAMARADUNA  
BERMATU.**

**IRAKASLEEK TELEFONO FAKTURAREN  
ORDAINKETARI PIZGARRIA EDO LAGUNTZA.**

**IKASLE ZAURGARRIENEI ORDENAGAILUA ESKEINIKO  
ZAIE.**

**IKASLEE ZAURGARRIENEI WIFI KONEXIOA  
BERMATUKO ZAIE.**

# **ITXIALDIA LH 2. ZIKLOA**



<p><b>GELA OSOA KONFINATUA</b> <b>(10 EGUN)</b></p> <p><b>LH 2. ZIKLOA</b></p>	<p><b>Gurasoen korreoa</b></p> <p><b>Lanak nola egin + Bideo deiak</b></p> <p><b>Lanen jasoketa</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Konfinatutako lehenengo egunean aste osorako plangintza emailez bidaliko da (zer egin, bideo-deiak noiz diren zehaztu...).</li> <li>- Bideo-deiak (Meet bidez): <ul style="list-style-type: none"> <li>Ø Talde osoa 4 talde txikitan banatuko dugu eta astean talde bakoitzeko bideodei bat.</li> <li>Ø Bideodeiak zertarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>· Ikasleek behar dituzten azalpenetarako.</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> <p><b>Eskolara bueltan jasoko dira txostenak.</b></p> <p><b>Beharraren arabera, harremana korreoarekin bidez mantenduko da.</b></p>
--	---	--

**Gurasoekin  
harremanak**

**Korreoz, telefonoz, meet-ez.**

**EZINBESTEKO**

**BALIABIDEAK**

**BIDEODEIAK *MEET* ERABILIZ EGINGO DIRA.**

**WIFI KALITATEZKOA.**

**IRAKASLEEI ORDENAGAILUA KAMARADUNA  
BERMATU.**

**IRAKASLEEK TELEFONO FAKTURAREN  
ORDAINKETARI PIZGARRIA EDO LAGUNTZA.**

**IKASLE ZAURGARRIENEI ORDENAGAILUA ESKEINIKO  
ZAIE.**

**IKASLEE ZAURGARRIENEI WIFI KONEXIOA  
BERMATUKO ZAIE.**

# ITXIALDIA LH 3. zikloa

## 1.- KONFINAMENU EGOERA ERABATEKOA (DENOK ETXEAN)

### Tutoreak aste osoko plangintza bidaliko du.

LH 3	Classroom	-Euskara, Gaztelania eta Ingurunean, asteroko lanak bidali. -Matematikan, astean bitan. -Musikan, Gorputz Hezkuntzan eta ingelesean, astean behin. -Tailerrak, bi/hiru astez behin.
	Lanak non egin	-Classroomen egingo dira gehienak. -Koadernoan egiten direnak, tarteka argazkia eskatuko zaie. -Irakasgaien liburuak etxera eramango dituzte. - Etxean ordenagailua ez duenak Chromebook-a eramateko aukera izango.
	Ebaluazioa	-Lan guztiak baloratuko dira. -Astero egingo dira zuzenketak. -Astearen bukaeran, ikasleen jarraipena egingo da.
	Bideo deiak	-Egunero goizean eta arratsaldean. Goizean eguneko plangintza azalduko da, eta arratsaldean, eguneko plangintza itxi eta zalantzak eta edukiak landuko dira beharrezkoak direnean. Egunean zehar, korreoz zalantzak argitzen joango gara. -Astean behin literatur tertulia egiteko. -Astean behin tutoretza egiteko. -Ingelesekoak, bideo deia astean behin egitea. -PT-ak astean behin bideo deiak egitea, HIBP duten ikasleen jarraipena egiteko. - Meet bidez egingo dira.
	Gurasoekin harremanak	-Astean behin korreoa bidaliko zaie, beraien seme-alaben hezkuntzarekiko dituzten zalantzak argitzeko eta edozein aldaketen berri emateko. -Bakarkako korreok: Beharrezkoa den kasuetan, ikasle baten jarraipen zehatzen berri emateko. -Gurasoei korreo bat bidali eta aste beteko epea emango diegu erantzuteko. Ez badute erantzuten aste beteko epe horretan, deitu egingo diegu. Deia ez badigute hartzen, zuzendaritzarekin harremanetan jarriko gara.

+IRAKASLE GUZTIEK IKASLE GUZTIEN EMAILAK IZATEA

**2.- GELA KONFINATUTA EDO IKASLE BATZUK BAINA**  
**IRAKASLEA EZ.**

LH 3	<p>Classroom</p> <p>Lanak non egin</p> <p>Ebaluazioa</p> <p>Bideo deiak</p> <p>Gurasoekin harremanak</p>	<p>-Euskara, Gaztelania eta Ingurunean, asteroko lanak bidali.</p> <p>-Matematikan, astean bitan.</p> <p>-Musikan, Gorputz Hezkuntzan eta ingelesean, astean behin.</p> <p>-Tailerrak.</p> <p>-Classroomen egingo dira gehienak.</p> <p>- Zenbait lan egiteko fitxak bidaliko zaizkie.</p> <p>-Kuadernoan egiten direnak, tarteka argazkia eskatuko zaie.</p> <p>-Irakasgaien liburuak etxera eramango dituzte, behar badituzte.</p> <p>- Etxean ordenagailua ez duenak Chromebook-a eramateko aukera izango.</p> <p>-Lan guztiak baloratuko dira.</p> <p>-Astero egingo dira zuzenketak.</p> <p>-Astearen bukaeran, ikasleen jarraipena egingo da.</p> <p>- Eskolara itzultzen direnean bidalitako lanak/fitxak jasoko dira.</p> <p>-Ez dira egingo.</p> <p>- Lehenengo egunean tutoreak familiari korroa bat bidaliko dio, lanak bidaliko direla esanez eta behar dituzten liburu eta kuadernoak jasotzera etortzeko. Korreo horretan ikaslearen ardura egunero korroa begiratzea izango dela argi zehaztu behar da.</p> <p>- Astean zehar korreoz zein telefonoz familiekin jarraipena egingo da.</p> <p>-Bakarkako korreoak: Beharrezkoa den kasuetan, ikasle baten jarraipen zehatzen berri emateko.</p>
------	--	---

### **3.- GELA ETA IRAKASLEA KONFINATUTA ETA IRAKASLEA BAJARIK GABE.**

Irakasleak etxetik bideratuko du bere ikasleen lana.

### **4.- GELA ETA IRAKASLEA KONFINATUTA ETA IRAKASLEA BAJAREKIN.**

Kasu honetan ordezkoa bidaliko dute eta ordezkoak beteko du konfinatutako irakaslearen lana.

# **IKASTOLA EGAPE (HHLHI)**

## **PLAN DE CONTINGENCIA**

### **Protocolo de actuación en el curso 2020-2021 (Covid-19)**

**(ESTE ES UN DOCUMENTO ABIERTO QUE SE ADAPTARÁ A LAS NECESIDADES QUE SURJAN)**

#### **ESCENARIO 1**

#### **MEDIDAS DE HIGIENE**

Colocar en las puertas de todas las aulas los murales con las normas de higiene

Agua potable: cada uno debe traer su botella con el nombre puesto.

Cubrir las barandillas con plástico rojiblanco para recordar que no se deben tocar (hasta que el alumnado se acostumbre).

Se mantendrán abiertas las puertas de las aulas y se abrirán las ventanas durante las horas de recreo para poder ventilarlas.

Hidrogeles:

Se colocarán en todas las aulas y en las entradas de los edificios.

Con los hidrogeles de las aulas se lavarán las manos varias veces durante el día: a la entrada, tras ir al baño, al subir desde el recreo, al mediodía y a la entrada de la tarde. El alumnado de Educación Infantil, en varias ocasiones, con agua y jabón.

Mascarilla:

Cada uno debe traer su propia mascarilla con el nombre y/o un símbolo (a partir del LH 1).

Habrà una caja de mascarillas por curso.

Los que por motivos de salud no puedan utilizar la mascarilla deberán presentar un certificado médico.

El alumnado debe utilizar la mascarilla todo el día salvo en las actividades al aire libre de todos los grupos estables de convivencia (1º y 2º de Educación Primaria) siempre que no haya contacto físico (tal y como se indica en las instrucciones enviadas por Educación el 8 de septiembre).

Material:

Educación Primaria: cada uno aportará su material.

Después de utilizar el material manipulativo que tenemos en las aulas se apartará unos días antes de volver a usarlo o se limpiará después del uso.

Teclados: a partir del 3º de Educación Primaria cada uno utilizará su ordenador.

Aula de Informática: solo será utilizada por el profesorado y el Primer Ciclo de Primaria, ya que a partir del 3º cada alumno/a tendrá su propio ordenador. Al finalizar la sesión cada alumno/profesor limpiará el teclado utilizado.

Enfermedades:

